

JARRAIBIDE ORRIA

*Arreta handiz irakurri jarraibide hauek. Oso dira garrantzizkoak saioa nola egin jakiteko. Azterketa egiteko moduz **zalantza edo zailtasunik** baduzu, **galdetu zaintzaileei azterketa hasi baino lehenago**.*

EZ IDATZI EZER, HARIK ETA AGINDUA EMAN ARTE.

- Mahaian, jarraibide-orri honekin batera, erantzun-orri bat izango duzu, ariketa teorikorako.
- Ariketa egiteko denbora osoan zehar, mahai gainean utzi behar duzu zure NAN, ondo ikusteko lekuan. **Sakelako telefonorik ekarri baduzu, deskonektatu eta gorde egin behar duzu.** Azterketa egiteko denbora osoan zehar, mahai gainean azterketa egiteko eman dizugun materiala, jasoko duzuna, boligrafo urdin edo beltza eta nortasun agiria besterik ezin duzu eduki.
- Azterketa egiteko denbora osoan zehar, erabatekoa izan behar du isiltasunak. Norbaitek ezegoki jokatzeko badu, edo beste lagunei kalte edo enbarazu egiten badie, azterketa-lekutik kanpora bidaliko da.

LEHENENGO ARIKETA

1. Erantzun-orria bikoitza da: bata zuria da, eta bestea horia. **Ez banatu orriok azterketa amaitu arte.** Ariketa amaitu ondoren, ezkerreko aldeko puntu-ilaratik tolestu eta hegaletik tiratu eta banandu; orri zuria bakarrik entregatuko duzu, bestea, horia, zuretzat gorde.
2. Ariketa irakurgailu optikoz zuzenduko da. Beraz, oso garrantzitsua da borobiltxoak ondo markatzea, orrian bertan esaten den erara; hau da, **gune osoa bete** eta ilundu behar da. Ez egin, bada, ez ixarrik (x), ez biribilik. Puntu edo marka txikiak ere hautatutako erantzun bezala irakur daitezke. Erantzunak **boligrafoz** beteko dira.
3. Galdera bakoitzak lau erantzun ditu aukeran: A, B, C eta D. Bakoitzak erantzun zuzen bat eta bakarra dauka. Galdera eta dagozkion lau erantzunak irakurri ondoren, erantzun-orrian jarri behar duzu zein den **erantzun zuzena goiko ilaran** (ikusi adibidea erantzun orriaren atzeko aldean). **Beheko ilaran bakarrik egindako markak ez dira kontuan hartuko.**
4. **Adi egon! Okertzen bazara eta ezeztatu nahi baduzu galderaren bat**, beheko ilaran ezeztatu nahi duzun aukera bete beharko duzu (EZEZT/ANULAR) eta goiko ilaran berriro markatu erantzun zuzena. Adi egon erantzun zuzena ematerakoan (ikusi adibidea erantzun orriaren atzeko aldean).
Zalantzarik baduzu, galdetu zaintzaile bati.
5. Agintzen denean, bete itzazu erantzun-orriko buruan eskatutako datuak: **izena, abizenak, sinadura eta NAN zenbakia**. Azken hau idazteko, **zenbakiak eta markak erabili** behar dituzu (ikusi erantzunen orriaren atzeko aldean datozen adibideak).
6. Ondoren egingo duzun azterketak **90 galdera** ditu.
Azken 10 galderak ordezkioak dira. Ordezko galderak bakarrik hartuko dira kontuan aurreko 80etakoren bat baliogabetzen bada. Hala ere, **zuk galdera guztiak erantzuten saiatu behar duzu.**
BI ORDU (120 minutu) izango duzu ariketa egiteko.
7. Ariketa honi, **gehienez, 40 puntu** emango zaizkio, eta **20 puntu gutxienez** lortu beharko dira **gainditzeko**.
Erantzun oker bakoitza 0,3 punturekin zigortuko da.
Erantzun gabeko erantzunak eta erantzun bikoitzak ez dute zigorrik izango.
8. Denbora bukatzen denean, zaintzaileari **erantzun-orri zuria eman** eta zuretzat gorde erantzun-orri horia eta galdetegia.